

BOLIDA

Udal kirol-politikan jauzi bat emateko
proposamen politikoa



ehbildu


Aurkibidea

1. Kirolaren kontzeptualizazioa udalgintzaren ikusmiratik	5
2. Barakaldoko kirolaren egoera.....	8
2.1. Kirol-politikaren antolaketa eta kudeaketa.....	8
2.1.1. Antolakuntza-estruktura eta barne koordinazioa	8
2.1.2. <i>Barakaldo Kirolak</i> bidezko kudeaketa	9
2.1.3. Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Adikzioen Prebentziorako Arloarekiko mendekotasuna	9
2.1.4. Informazioa eskuratzeko zailtasuna.....	9
2.1.5. Barakaldo Kirolakeko Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendua	10
2.1.6. Hazkundera kirol zerbitzuen pribatizazioan.....	10
2.2. Kirol-sarbiderako eredia, kirol-eskaintza eta instalazioak.....	11
2.2.1. Kirol-eskaintza publikoaren ikuspegia	11
2.2.2. Erakunde-lehentasunak: marka, marketing eta kontsumoa	11
2.2.3. Ekintza puntualak eta kirol-eredu herritarraren gabezia	11
2.2.4. Kirol-instalazioen egoera eta mantentze-lanak.....	12
2.2.5. Instalazioen zabalpena eta epe luzearako plangintzaren beharra	12
2.3. Kirol-agente eta klubekin elkarbizitza eta kolaborazioa.....	13
2.3.1. Kirol-entitateekiko babes instituzionala.....	13
2.3.2. Udalaren eta klubaren arteko harreman-dinamikak	13
2.3.3. Kirol-kudeaketaren eragina klubaren funtzionamenduan.....	13
2.3.4. Klubekiko harremana garatzeko marko politiko zehatzaren gabezia	13
2.3.5. Tokiko instituzioaren eta kirol-ehunaren arteko distantzia	14
2.4. Eskola kirola: kudeaketa eredia eta hezkuntza-deskonexioa.....	14
2.4.1. Barakaldoko eskola kirolaren egoera orokorra	14
2.4.2. Lehiakortasun ikuspegiaren lehentasuna, hezkuntza-ikuspegiaren gaineratik.....	14
2.4.3. Udal eskaintzaren mugak.....	15
2.4.4. Eskola kirolarekiko dependentzia ekonomikoa	15
2.4.5. Elkarbanatutako ikusmira estrategikoaren falta.....	15
3. Helburu orokorra eta azpi-helburuak.....	18
4. Ekintza Plana.....	20

1. Kirolaren kontzeptualizazioa udalgintzaren ikusmiratik

Ez dugu kirola talde sozial bateko hainbatek eginiko ekintza fisiko huts gisa ulertzen. Hori baino, XXI. mendeko herritarren zenbait beharrezan asetzeko erreminta gisa. Horien artean, hiru dimentsio nagusi (1. Grafikoa) azpimarratu daitezke, udalgintzako perspektibatik kirolaren erronkari eusteko oinarri bezala hartu behar direnak; dagoeneko existitzen diren eta elkarri elikatzen dioten hiru dimentsio, baten amaiera eta hurrengoaren hasieraren arteko muga lausoa identifikatzeko zaila izaten delarik:

- » Kirola **osasun eta zaintza aktibo** legez. Biztaleriaren osasun fisiko eta mentala suspertzen du; zaintza, autozaintza eta ongizate kolektiboa sustatzen duten harreman eta espazioak sortzearekin batera.
- » Kirola **kohesio-erreminta** gisa. Kirolak, maiz, hainbat kultura, errealitate eta behar helburu komun baten bueltan biltzeko gaitasuna du, harremanak sendotuz eta talde sozialak kohesionatuz. Izan ere, kirola tresna bereziki ona izan daiteke errealitate soziologiko eleanitzetan, eta are gehiago hizkuntza gutxituen sustapenerako erreminta bezala, Barakaldon euskararekin, kasu.
- » Kirola **ekintza hezitzaile** bezala. Bizi osorako ikas-ingurunea izan daiteke, zeinean erabiltzaileek esperientzia anitzak konpartitu eta balore inklusiboak, berdinen arteko harremanak eta gaitasun pertsonal zein sozialak garatzen dituzten.



Zentzu horretan, eta Barakaldoko perspektibatik, uste dugu aipatutako dimentsioak aintzat hartuko dituzten politika publikoen garapenean aurrera egitea:

- » Kirolaren ikuspegi integrala izango duen udal kirol-sistema sustatzeko, mota desberdinetako kirolak, udal arloak eta ekintza-eremuen arteko kolaborazioa suspertuz, herritarren behar desberdinei erantzun koordinatua emateko.
- » Kirol-sistema publiko eta komunitarioa sortzeko, azpiegitura irisgarri (ekonomikoki, fisikoki, ...) eta duinak bermatuz. Horretarako, sistema honetan kirol-agenteen parte hartze aktiboa bermatu behar da, eurengan honen kudeaketa delegatuz beharrezkoa denean, eta kirolaren kudeaketa entzumen aktibotik egiteko ekintza gisa ulertuz.
- » Udal kirol-sistema kohesionatu eta koordinatua garatzea, kirol klubak eta taldeen anitzatsuna aintzat hartzen duena, eta norbanakoen, kirol-entitateen eta Udalaren arteko kolaborazio egonkorra bultzatzen duena

Hau guztia udalgintza herrigilearen ikuspegitik garatua, zeinean instituzioa kirol arloan politika publikoen sustatzailea izatetik harago; herritarren, talde sozialen, kirol-entitateen eta enpresa-ehunaren arteko kolaborazioa bultzatzeko espazio parte hartzaileak eta erabakimen-espazioak irekiko dituen. Hau da, udalgintza herrigilearen perspektibatik, instituzioa ezin da mugatu politika publikoaren garapenera; ostera, parte hartzerako, elkarrizketarako eta erabaki

konpartituetarako espazioak sortzean aktiboki inplikatu behar da. Alegia, herritarren, kolektibo sozialen, kirol-entitateen eta tokiko ehunaren arteko kirol-kudeaketa sortzean datza, erantzukidetasunean oinarritua, kirola politika publiko huts gisa ulertu baino, kohesio-sozialerako eta instituzioaren eta komunitatearen arteko eraikuntza kolektiborako tresna izan dadin.

2. Barakaldoko kirolaren egoera

Barakaldoko kirolaren egoeraren analisia ondoren agertzen diren lau ardatz edo blokeetan banatu dugu, hauen bitartez udalerriko erronka, ahulezi zein indargune nagusiak biltzen direlarik:

2.1. Kirol-politikaren antolaketa eta kudeaketa

Barakaldoko kirolaren analisirako, ondorengo erradiografia hau ardatz desberdinetan antolatu dugu, hauetako garrantzitsuenetako bat kirol-politikaren antolaketa eta kudeaketa delarik. Bloke honek ahalbidetzen du udal-ekintzaren planifikazioa, koordinazioa eta egikaritzea zelakoa den ulertzea. Hain zuzen, barne-estruktura eta koordinazioa kirol-kudeaketa sustengatzen duten oinarriak dira, arlo honetako politika publikoen eraginkortasunean, koherentzian eta irisgarritasunean eragina dutelarik. Dimentsio honen azterketa ezinbestekoa da indargune, ahulgune eta hobekuntzarako aukerak identifikatzeko, eta udal-ekintza publikoan kirola ardatz estrategiko gisa kokatzeko.

2.1.1. Antolakuntza-estruktura eta barne koordinazioa

Barakaldoko kirolaren kudeaketa muga estruktural eta barne-koordinaziorako muga nabariak izan baditu, udal ekintza publikoan honen integrazioa zailtzen dutenak. Gaur egun, kirolak ez du politika publikoetan toki zentralik, eta honen kudeaketa Udal arlo eta kanpoko entitate, klub eta enpresa desberdinetan partzialki deszentralizatuta dago. Barne arrakala hau, arlo bakoitzak dituen bisio politiko desberdinei gehitzen badiogu, zenbait kirol-ekintzen izapidetze barreiatua

dakar, prozesuak berandutuz, deskoordinazioa sortuz eta bisio estrategiko amankomuna mantentzea oztopatuz.

Honen guztiaren ondorioz, herritarrek eta klubek maiz administrazioa espazio eskuragaitz gisa hautematen dute, hark hurbila eta edozein bizilagun barakaldarrarentzat ulergarria izan beharko lukeenean. Koordinazio falta honek, gainera, Udalaren zuzeneko planifikazioa globala ere mugatzen du, eta honek kirolaren ulerkera sektorializatua dakar, kirolak zeharkako polititika publiko eta komunitarioak artikulatzeko duen potentzialitatea tresna estrategiko legez baztertuz.

2.1.2. Barakaldo Kirolak bidezko kudeaketa

Kirolaren kudeaketa publikoa **Barakaldo Kirolaren** bidez eegiten da, izaera juridikoa eta kudeaketa propioa dituen organismo autonomoa, partzialki eta modu independentean jarduten duena Udalaren zuzeneko estruktura administratibotik harago. Antolaketa modu honek nolabaiteko autonomia operatiboa eskaintzen badu ere, udal estrategien baitan kirol-politiken integrazioa ere zaildu dezake. Honen ondorioa da, maiz, kirolaren ekimen-zuzena instalazioen eta zerbitzuen kudeaketara mugatu izana, ekimen publikoaren ardatz estrategiko legez kokatu ordez.

2.1.3. Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Adikzioen Prebentziorako Arloarekiko mendekotasuna

Barakaldo Kirolak Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Adikzioen Prebentziorako udal arloaren mende dago, kirol-eremua aipatu ere egiten ez duen saila, alegia. Gainera, arlo honen zinegotzia edo arduradun politikoak ez du bat egiten organismo autonomoaren lehendakariarekin. Dualtasun honek planifikazioan eta udal politika publikoen egikaritzean koherentzia falta dakar, eta ekintza konkretuen desegitea, bikoizpena edota departamentu arteko koordinazioa zailtzea ekar dezake, kirolarekiko bisio estrategikoa ahulduz. Adibide moduan, zenbait kasutan kirol eremu jakin bateko egoera eguneratu hutsa jasotzea bereziki zaila izaten da.

2.1.4. Informazioa eskuratzeko zailtasuna

Orain arte aipatutako gehiegizko burokratizazioa, bisio amankomun eza eta kirolaren bueltan dagoen kontzeptualizazio mugatuari, herritarrek kirol eremuan informazio gardena, osatua eta eguneratua lortzeko dituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio. Honek oinarritzko izapideak

betetzea zailtzen du; hala nola, klub baten sorkuntzarako beharrezkoak diren urratsak ezagutzea, erabilgarri dauden udal dirulaguntzak, gaur egungo eskaintza publikoa edota seme-alabak kirol-ekintzetan matrikulatzeko kokapenak.

2.1.5. Barakaldo Kirolakeko Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendua

Barakaldo Kirolakeko Zuzendaritza Kontseiluak norabide estrategikoa, jarduna eta hiriko kirol-politika zuzendu beharko luke. Funtzio honek dituen zailtasunak zailtasun, gaur egungo parte hartze espazioak oso mugatuta daude. Kontseilua behin baino ez da batzen hiruhilekoka, araudiak halabehartuta, eta ez dago inolako parte hartze edo kolaborazio erreala bertoko partaideen artean. Honen funtzioa mugatu ohi da diru-kantitateak onartzera eta egindako jardueren inguruko jakinarazpenak ematera, Barakaldoko kirolak hartu beharko lukeen norabiderako elkarrizketa politikoari edota eztabaida estrategikoei aukerak ireki gabe. Bilerek, oro har, 30 minutu baino gutxiago irauten dute.

2.1.6. Hazkundera kirol zerbitzuen pribatizazioan

Gaur egungo Barakaldoko kirol-kudeaketaren ondorioz, udal zerbitzuen pribatizazioa areagotu egin da, azpiegituren instalazioetatik ikastaroen eskaintza eta lanpostuen betetzeraino. Egoera honek, are gehiago prekarizatutako enplegua sortzeaz gain, izapideak konplexuago bihurtu eta zerbitzu publikoaren kalitatean eragina izaten du.

Azken urteotan, kirol-makroentitate pribatuei lizentziak eman zaizkie, hiriko eskaintza pribatua publikoaren gainetik zabalduz. Honek ekarri du gero eta herritar gehiagok instalazio pribatuetara jotzea, ez behar espezializatuak tartean direlako, baizik eta kudeaketa publikoak dituen hutsuneak direla kausa; gimnasio itxiak, apurtutako makinak edota egoera txarrean topatu daitezkeen aldakelak, kasu.

Halere, azpimarratu nahi da ezaugarri positibotzat hartzen dela kirolaren bueltako ehun enpresarialaren garapena, eskaintza publikoaren osagarri gisa eta behar espezializatuak asetzeko baliagarria delarik; betiere honek ez duelakoan ordezkaturako edo gailenduko zerbitzu publiko sendo eta irisgarri bat.

2.2. Kirol-sarbiderako eredua, kirol-eskaintza eta instalazioak

2.2.1. Kirol-eskaintza publikoaren ikuspegia

Aurretik adierazi den legez, Barakaldoko kirol-politikak bisio estrategiko falta nabaria izan badu. Halere, azpimarratu beharra dago udalerrian egiten den kirol-eskaintza zabala eta anitza dela. Arazoa ez da egin daitezkeen ekintza kopurua, baizik eta zein ikuspegitik diseinatzen den hau, kirolaren alorrean egiten den kudeaketa publikoaren alorrean, hain zuzen.

Zentzu honetan, gaur egungo kirol-eskaintza publikoa ulertu ohi da, oro har, kontsumo-ekintza gisa, diru-sarrerak sortzera bideratua edo turismo-dinamikekin lotua; tresna komunitarioa edo osasun-edota elkarbizitza-erreminta bezala ulertzetik urrun. Udalerrian ezartzen ari den eskaintza publikoaren eredua argi eta garbi ulertu ahal izateko esaldi batean, ondorengoa esan genezake: «kalitatezko kirola ordaindu egiten da».

2.2.2. Erakunde-lehentasunak: marka, marketing eta kontsumoa

Ikuspegi hau ikus daiteke Barakaldo Kirolak marka bihurtzeko egiten ari den gero eta inbertsio handiagoan, marketingean (karpak, iragarkiak, logotipoak, banderolak) edota digitalizazio prozesuetan (NFC pultserak, SMS mezu-sistemak) eginiko apuestuekin batera. Modu berean, zenbait kanpaina zehatzetan egindako enfasi berezia zera adierazten du; hala nola, Pulmón de Acero edota ustezko turismo aktiboaren eredua sustatuko dituzten horiek.

Logika honetatik, EAJ-PSEk bultzatzen dituzten politikek kirola kontsumo-produkto gisa indartzen dituzte, elkarbizitza- eta osasun-adierazleetan eta adierazle komunitarioetan azpimarra egin gabe.

2.2.3. Ekintza puntualak eta kirol-eredu herritarraren gabezia

Barakaldon izaera sozialagoa duten inizatiba zenbait—bidegorrien zabalpena, kasu, udal-mugikortasunari lotutako ekimen legez ulertzen duguna eta ez kirol-estrategia bezala; edota pertsona nagusiei zuzendutako *En Zapatillas* programa— egon arren, ez dago kirol-eredu herritar, irisgarri eta komunitario baten aldeko apusturik.

Azken hilabeteotan kirol-eskaintzaren zenbait alor hobetzeko interesa hauteman da, gazteria eremuan batez ere. Horren adibide dira Giltzarri eta Gazte Bulegoarekin elkarlanean garatutako jarduerak, edo Barakaldo Kirolakeko abonua gaztea, duela urtebete baino gehiago publikoki aurkeztu arren, martxan jarri gabe jarraitzen duena.

2.2.4. Kirol-instalazioen egoera eta mantentze-lanak

Fokua kirol-instalazioetan jarriz gero, hauetan ematen ari den narriadura oso esanguratsua da. Alarmista den diskurtso batean erortzea sahiestu nah

Si trasladamos el análisis al estado de las instalaciones deportivas, se observa un deterioro significativo. Diskurtso alarmista batean erortzeko asmorik gabe, udal instalazio asko zaharkituta edo egoera txarrean daude. Baina, egoera hau, neurri handi batean, urteetan egondako prebentziorako mantentze-lan ezaren ondorioa da, lan horiei begirako lanpostuen murriztearena eta kirolak suposatzen duen lehentasun-politiko eskasarena.

Azken urteotan hobekuntza puntual zenbait jazo dira —hala nola, udal gimnasioaren handitzea, makina berrien erosketak, atletismo-pistako galipota botatze berria edota kirol kontainerraren eskuratzea—. Alabaina, ekintza hauek premia-koak diren behar koiunturalei erantzuten diete, kirol-espazioen zaintzarako prebentzio-plangintza estrukturatuari baino.

2.2.5. Instalazioen zabalpena eta epe luzerako plangintzaren beharra

Halaber, kirol instalazioen kopurua handitu da; hala nola, San Bizenteko edo Lasasarreko multikirolerako kantzak, gimnasioen handitzeak edo parke osasungarri berrien sorrera, kiroldegiek pairatzen duten saturazioari aurre egiteko eta Kirol Legean ezarritakoan betez.

Kirolerako sarbidea errazteko eta doako eta arautu gabeko espazioak eskaintzeko neurri hauek positiboki baloratzen ditugu. Baina, hauek epe ertain-luzeko begirada estrategikoarekin lagunduta joan behar dute, kiroldegien egoera modu integralean aztertzen duena eta soluzio estrukturalak eta jasagarriak planteatzen dituenak.

2.3. Kirol-agente eta klubekin elkarbizitza eta kolaborazioa

Barakaldok duen indargune argigarrienetariko udalerrian dagoen kirol eskaintza anitza da. Hamarnaka kirol klubentz bitartez nagusi, txikitxo eta helduen egunerokotasuna ekintzez bete ohi da. Patinaje kllubetatik, senderismo edo igeriketa, atletismo, futbola eta esku-baloiraino, herri kirol tradizionalak ahaztu gabe, pala, pilota edo katxete bola jokoa, kasu. Entrenatu eta lehiatzen diren klubak izatetik harago, auzoetako jai-batzordeetan parte hartzen, udaleku-eskaintzak sortzen edota klubeko data berezietan familien edo jarraitzaileen kolaborazioa suspertzen aritzen direnak; kohesio sozialerako espazioak sortzen dituztenak, alegia. Alabaina, ikusmira instituzionaleetik hobetzeko marjina nabaria da. Izan ere, aniztasun hori egon arren, gaur egun nahiko errealitate prekariotik abiatzen gara erakundeak kirol erakundeei eman beharko liekeenari dagokionez. Eskasia hori hainbat eremutan ikus daiteke:

2.3.1. Kirol-entitateekiko babes instituzionala

Erakundeen ikuspegitik, aniztasun hori ez dator bat kirol-erakundeei laguntza publikoa emateko mekanismoen ahultasun-egoerarekin. Gaur egun, eskura dauden baliabideak eta tresnak mugatuak dira tokiko kirol ehunaren beharrei modu estrukturalean erantzuteko.

2.3.2. Udalaren eta klubentz arteko harreman-dinamikak

Udalaren eta klubentz arteko harremana modu indibidualizatuan egituratzen da gehienbat, erakunde bakoitzaren behar material eta ekonomikoek baldintzatuta. Ez da identifikatzen klubentz arteko lankidetzara iraunkorra sustatzen duen udal irismeneko kirol arteko ekimenik, ezta kirol erakundeen arteko beharrak partekatuzera, jarduerak koordinatuzera edo lankidetzara harremanak sortuzera bideratutako espazio egonkorrik ere.

2.3.3. Kirol-kudeaketaren eragina klubentz funtzionamenduan

Barakaldoko kirolaren kudeaketa honek eragin zuzena du klubentz egunerokoan, batez ere instalazioen egoeran, inbertsio publikoan edo jarduerentz plangintzan. Izan ere, harreman-eredu indibidualizatu horrek, praktikan, erakundeen arteko lehia sortzen du baldintza hobek lortzeko, eta hori areagotu egiten da plangintza argi eta partekaturik ez dagoelako.

2.3.4. Klubentziko harremana garatzeko marko politiko zehatzaren gabezia

Udal kirol-kudeaketan ez dago lan lerro politiko argi eta koherentea klubekiko harremanari dagokionean. Udalak ez du bere jarduna kirol-eredu zehatz bati begira bideratzen —dela elite-kirola, inklusio sozialekoa, euskara sustatzeko helburua duena edo izaera komunitarioa sendotzekoa—, eta egoera honek baliabideen banaketa desorekatua eta gutxi sistematizatua dakar. Antza, klubaren tamaina, kirolaren tipologia, euskaraz egiten den eskaintza edo honen inpaktu soziala ez omen dira erabakiak hartzeko adierazle egonkorrak.

2.3.5. Tokiko instituzioaren eta kirol-ehunaren arteko distantzia

Azkenik, instituzioaren eta kirol-erakundeen egunerokotasun errearen arteko distantzia azpimarratu behar da, komunikazio- eta ezagutza-zailtasunetan edo beharren-lerrokatzean agerikoa dena. Azken urteotan, klubei zuzendutako eskaintza formatiboa bezalako ekimenak sortu badira ere, hauetan egondako parte hartze eskasak agerian uzten du instituzioak egiten dituen edukizko proposamenen eta kirol-entitateen behar errearen arteko arrakala.

2.4. Eskola kirola: kudeaketa eredua eta hezkuntza-deskonexioa

2.4.1. Barakaldoko eskola kirolaren egoera orokorra

Eskola kirolari dagokionez —hezkuntza formala osatzeko ekintza hezitzaile gisa ulertuta, ikasleen garapen integralerako hezkuntza-helburuekin lerrokatuta egon beharko litzatekeena—, Barakaldon egoera paradoxikoa da, Bizkaiko Lurralde Historikora estrapolagarria dena.

Azken urteotan hezkuntzatik gero eta gehiago urruntzen ari den eskola-kirola nagusitu da. Eskola-kirolaren kudeaketa historikoki, Foru Aldundiaren eta Udalaren beraren oniritziarekin, Kirol Federazioetan delegatu da; nagusiki kirol-klub pribatuez osatutako entitateak. Paraleloki, ez da politikarik garatu entitate hauek aktiboki eskoletan parte hartu dezaten, ezta proiektu pedagogikoekin edota klustroekin lerrokatuta egon zitezkeen kolaborazio-akordio egonkorrak sustatzeko ere.

2.4.2. Lehiakortasun ikuspegiaren lehentasuna, hezkuntza-ikuspegiaren ginetik

Funtzionatzeko modu hau, Barakaldon ere bai, eskola kirola lehiara bideratutako entitateek, gehienbat, sustatutako eskola kirol eredu bihurtu dute; eta honek dakar maiz aintzat ez hartzea ikasleen hezkuntza-, gizarte- edota formakuntza-beharrak. Praktikan eta gehienetan, haurren aisialdia klub eta gimnasio pribatuak direla medio baino ez da zuzentzen, udal-erantzukizunak agente hauetan eskuordetzearen ondorio gisa.

Bereziki esanguratsua da aipatutako ekintza horiek, askotan, instalazio publikoetan garatu izana. Honek agerian zuten du eskola kirolean darabilten azpikontratatzek, tokiko erakundeak bermatutako jarraipen estrategiko edo hezitzailek gabekoak.

2.4.3. Udal eskaintzaren mugak

Egoera hau ez da ustekabekoa, hura ahalbidetu eta sustatu duen erabaki instituzionaren erabaki-esparru baten ondorioa baizik. Gaur gaurkoz, udal eskolen eskaintza hiru edo lau kirol-diziplinetara mugatzen da, plaza gutxiarekin eta aniztasun eskasarekin. Errealitate honen aurrean, argiki eskasa den udal eskaintza osatu egiten dutenak klubak eurak dira.

2.4.4. Eskola kirolarekiko dependentzia ekonomikoa

Paraleloki, eskola kirola kirol-elkarte askorentzat sustengu ekonomikorako ezinbesteko aukera bihurtu da. Arlo honetarako zuzendu ohi diren diru-laguntzek taldeen oinarrizko behar materialak lortzea ahalbidetzen dute; oro har, kirol-elkarte bezala esleitzen zaien diru-laguntzaren bitartez asetu ezin dituztenak. Honek, beraz, taldeentzat eskola-kirolarekiko dependentzia estrukturala dakarkie, bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko.

2.4.5. Elkarbanatutako ikusmira estrategikoaren falta

Aurreko guztia kontuan hartuta ondorioztatu daiteke, kirol-politika orokorraren kudeaketan gertatzen den bezala, eskola-kirolaren alorrean ere ez dagoela bisio estrategikorik, ezta irizpide-politikorik, zeinak:

Todo lo anterior permite concluir que, al igual que ocurre en la gestión de la política deportiva general, en el ámbito del deporte escolar tampoco se identifica una visión estratégica ni una directriz política clara que:

- Haurrek kirol-praktika aberats eta anitz baterako sarbidea izan dezaten, ongizatearen hobekuntzara eta bizi-ohitura osasungarrien ikaspenera bideratua;
- Eskola-kirola inklusioa, kohesio soziala, genero berdintasuna edo eskola testuingurutik aldentutako hizkuntza-ohituren sustapena bezalako eremuak lantzeko erreminta-hezitzaile gisa ulertzen duena;
- Udalaren, hezkuntza-zentroyen eta kirol-klub pribatuen arteko parte-hartzerako eta elkarlanerako marko egonkorrak sustatzen dituen, udalgintza herrigilearen logikatik eta baliabide publikoen banaketa koherentetik.



Ikuspegi global batetik, diagnostiko hauek guztiek agerian uzten dute, Barakaldok kirol-ehun anitza eta aktiboa izan arren, kirolaren kudeaketa instituzionalean, eskaintzaren planifikazioan, klubaren arteko koordinazioan eta eskola-kirolaren artikulazioan muga estruktural esanguratsuak egon badaudela. Argazki honek irisgarritasuna, kohesio soziala eta kirolaren funtzio hezitzailea udalerrian indartzeko neurri eta proposamenak planteatzeko esparrua ezartzen du.

BARAKALDOKO KIROLAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

1. Erakundeak sustatu beharko lukeen kirol-ereduaren inguruan ez dago zuzendaritzarik, ezta jarrera argirik ere. Eta honek eragina du zenbait alorretan; hala nola, kirol-entitateekiko harreman desorekatuetan, udal gastuaren inkoherentzietan, Udalak bere izaera publikoa ahaztuz enpresak kirola eskaintzeko ireki duen lan leerro berria...
2. Gaur egungo EAJ-PSEren gobernantza ereduak ez du bere lehentasunen artean kirola aurreikusten, udal-antolaketa arlo hau lasotuta utziz. Honek, maiz, kirolaren kudeaketa *gainburokratizatu*a dakar.
3. Barakaldoko kirolaren zuzendaritza noraezean dihardu, non erabakitze-markoak eta hura zuzentzeko estrategia, oro har, kreditu-gasuen onarpenera bideratzen diren, Barakaldoko kirola norantz egin beharko lukeen inguruko elkarrizketa existitu gabe.
4. Etorkizunerako begiradagabezi honek azken hamarkadetan kirolaren alorrean egon den apustu ezan eragina izan du, gero eta egoera prekarioagoa sortuz (Barakaldo Kirolakeko plantilla, instalazioak, klub beharrianak...).
5. Aurrekontu-gastuan hazkundea egon eta zenbait obra egin izan arren, aldaketa hauek eman dira zenbait zerbitzuen prezioen gorakadaren ondorio gisa edo instalazioak dagozkien araudietara egokitzeko behar hutsetik abiatuta. Ez da egon kirolerako eskubidearekiko apustu errealik.
6. Gobernantza eredu herritarrengandik eta kirol entitateengatik urrun lotu da. Eta azken hauen kasuan, ez da kirolarteko kolaboraziorik sustatzen, loturak ezartzea, materiala aprobetxatzea, elkarlanerako ekintzak sortzea eta interes-eremu amankomunak identifikatzea, besteak beste, ahalbidetuko lukeena.
7. Udal eskola kirola eta haren kudeaketa ez dago Barakaldoko ikasleen hezkuntza-beharrianekin lerrokatuta, eta honen ardura udalerriko klub pribatuen eskuetan uzten da.

3. Helburu orokorra eta azpi-helburuak

Egindako diagnostikotik abiatuta eta proposamenaren lehen atalean egindako kirolaren inguruko kontzeptualizazioa kontuan hartuz, helburu orokor gisa hurrengoak izendatu da:

HELBURU OROKORRA

Udal kirol sistema publiko, komunitario eta irisgarria garatzea, ikusmira holistiko eta parte-hartzaitetik, Barakaldoko herritarren garapen integralean lagundu dezakeen kirola egikartitu dadin; *osasun eta zaintza aktibo gisa, kohesio sozialerako eta kulturartekotasunerako* erreminta bezala eta *hezkuntza-ekintza* legez. Hala, erakunde, kirol-agente eta komunitatearen arteko elkarlanerako harremanak sustatuz, instalazioen duintasuna bermatuz eta gobernantza-eredu gardena, demokratikoa eta kirolerako eskubidea ardatz duena sendotuz.

Alabaina, helburu horren erdiespenerako hurrengo azpi-helburuak ezarri dira:

- AH1. Udal kirolaren gobernantza eredu argia, koordinatua eta gardena sustatzea, egungo gainburokratizazioa gainditu, kirolaren izaera publikoa indartu, herritarrei informazio irisgarria bermatu eta kirol agenteekin plangintza-, inbertsio- eta harreman-irizpide argiak definitzen dituen.
- AH2. Kirol sistema publiko eta komunitarioa bermatzea, kirola osasun- eta zaintza-aktibo gisa kokatzen duena, bizi-etapa guztian ohitura osasungarriak sustatuz.
- AH3. Kohesio soziala, euskara eta euskal kultura, kulturartekotasuna eta elkarbizitza

sustatzea; klub, hezigune, kultur elkarte eta herritarren arteko kolaborazioa bultzatzeko kirol-politiken bitartez, proiektu konpartituak zabalduz eta harreman komunitarioak sendotuz.

AH3.a. Eskola kirola eredu hezitzaile, inklusibo eta hezkidetzailerantz biratzea, ikasleen garapen integrala osatuz, proiektu pedagogikoekin lerrokatuz eta hezigune eta kirol-entitateen arteko kolaborazioa bermatuz.

AH4. Kirol-instalazio duin, anitz, irisgarri, seguru eta kalitatezkoak bermatzea, Barakaldoko kirolaren kalitatea hobetzeko.

4. Ekintza Plana

AH1. Udal kirolaren gobernantza eredu argia, koordinatua eta gardena sustatzea, egungo gainburokratizazioa gainditu, kirolaren izaera publikoa indartu, herritarrei informazio irisgarria bermatu eta kirol agenteekin plangintza-, inbertsio- eta harreman-irizpide argiak definitzen dituen.	
EKINTZAK	<p>AH1.1. Kirol eredu barakaldarra definitzeko eta sustatzeko Plan Estrategiko Instituzionala.</p> <p>AH1.2. Barakaldo Kirolakeko berregituratze eta eraldatzea; funtzioak, estatutuak eta Zuzendaritza Kontseiluko betebeharrak birformulatuz, besteak beste.</p> <p>AH1.3. Udaleko barne antolaketaren azterketa, kirol politikaren kudeaketa zuzena eta eraginkorrerako; Kirolari zuzenean lotutako zinetzigoa sortuz.</p> <p>AH1.4. Kirol arloko plantillaren azterketa eta indartzea</p> <p>AH1.5. Udalaren eta klubaren arteko harremana definitzeko erakunde-protokolo bat sortu eta martxan jartzea</p> <p>AH1.6. Martxan dauden kirol arloko diru laguntzen berrikuspina eta adierazleen zehaztapena egitea, eta balizko behar berriei egokitutako laguntzak sortzeko aukerak aztertzea.</p>

AH2. Kirol sistema publiko eta komunitarioa bermatzea, kirola osasun- eta zaintza-aktibo gisa kokatzen duena, bizi-etapa guztian ohitura

osasungarriak sustatuz.	
EKINTZAK	<p>AH2.1. Abonatuetatik haratago helduko den newsletter edo kirol arloko berrien udal-boletina sortzea herritar ororentzat.</p> <p>AH2.2. Bizitza aktiboa sustatzeko Mugiment edo JFOZ bezalako programarekin lerrokatutako ekintza, zerbitzu eta baliabide propioak martxan jartzea.</p> <p>AH2.3. Herritarrentzako postontzia martxan jartzea, kirol arloko arazoan kudeaketarako, ebaluaziorako, diagnostikorako eta Barakaldoko kirola, oro har, hobetzeko.</p>

AH3. Kohesio soziala, euskara eta euskal kultura, kulturartekotasuna eta elkarbizitza sustatzea; klub, hezigune, kultur elkarte eta herritarren arteko kolaborazioa bultzatzeko kirol-politiken bitartez, proiektu konpartituak zabalduz eta harreman komunitarioak sendotuz.	
EKINTZAK	<p>AH3.1 Udal Kirol Kontseiluaren araudia birpasatu, egunratu eta jarraikortasunez aktibatzea, kirol-eremuan herritarren parte hartzea bermatua egon dadin.</p> <p>AH3.2 Herriko klub eta kirol-agenteen formakuntza-beharrak ezagutzeko entzute-ariketa eta diagnostikoa.</p> <p>AH3.3 Udal Kirol Kontseiluak diseinatutako Formakuntza Plana garatzea, herriko klub eta kirol-agenteen beharrekin koordinatua.</p> <p>AH3.4 Herri Kirolak eta Euskal Pilota sustatzeko eta indartzeko plan espezifikoak garatzea, herri identitaterako sinbolo gisa.</p> <p>AH3.5 Kirolaren bitartez sozialitzatzeko aniztasunerako eta inklusiorako arloarteko programa bat garatzea.</p> <p>AH3.6 Euskararen Normalkuntzarako Udal planaren eta tokiko kirol-jardueraren arteko sinergiak sortzeko aukerak aztertzea.</p>

	AH3.7 Kirol-egitasmoetan euskararen presentzia bermatzeko udal-baliabideak martxan jartzea.
--	---

AH3.a. Eskola kirola eredu hezitzaile, euskalduna, inklusibo eta hezkidetzailerantz biratzea, ikasleen garapen integralaosatuz, proiektu pedagogikoekin lerrokatuz eta hezigune eta kirol-entitateen arteko kolaborazioa bermatuz.

EKINTZAK	<p>AH3.a.1. Eskola kirola euskaraz garatuko dela bermatzea.</p> <p>AH3.a.2. Eskola kirola koordinatzea eta antolatzea hezigune eta kirol-agenteen bitartez koordinatzea, auzo, kirol-mota eta instalazioen arabera.</p> <p>AH3.a.3. Eskola kirola berbideratzeko Kirol Koordinatzailearen kargua sortzea, IGEkin elkarlanean aritzeko eta eskolen eta kirol-entitateen arteko aliantzak sorrarazteko.</p> <p>AH3.a.4. Multikirolerako udal programak garatzea, Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatua.</p>
----------	---

AH4. Kirol-instalazio duin, anitz, irisgarri, seguru eta kalitatezkoak bermatzea, Barakaldoko kirolaren kalitatea hobetzeko.

EKINTZAK	<p>AH4.1. Kirol espazioen berrikuspen orokorra (instalazioak, espazio publikoak...).</p> <p>AH4.2. Kirol espazioen erabilerarako hitzarmenak sustatzea entitate publikoekin (eskolak, ...) zein itunpekoekin (institutuak, Miranda Fundazioa...), kirol-instalazio erabilgarrien zabalpenerako eta egungoen saturazioa murrizteko.</p> <p>AH4.3. Kirol instalazioen mantentze-lan eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa.</p> <p>AH4.4. Hezkuntza-zentroen kirol-instalazioak hobetzea.</p> <p>AH4.5. Arrontegi auzoan kokatuko litzatekeen igerileku olinpikoa sortzeko proiektua martxan jartzea.</p>
----------	--

	<p>AH4.6. Eguzkiagirren kokatutako kirol-instalazioak konpondu eta partzialki estaltzea.</p> <p>AH4.7. Lasasarreko Barakaldo F.K.eko estadioaren erabilera zabaltzea.</p> <p>AH4.8. Arrontegiko frontoia estaltzea.</p> <p>AH4.9. Udal gimnasioen hobekuntza eta berrikuntza.</p> <p>AH4.10. Erdialde inguruan gimnasio publiko berri bat irekitzeko aukera aztertzea.</p>
--	--

ehbildu